

## Irakasle irlandar bat HUHEZIn, bertako hezkuntza proiektua eta ereduak gertutik ezagutzeko

2007/10/16

**Eibhlin Mhic Aoidh** anderea bisitan dugu Eskoriatzan. Urriaren 15ean etorri zen, eta 17a arte gurean izango da, Erasmus egonaldi bat egiten. Eibhlin Mhic Aoidh anderea irakaslea dugu St Mary's University College-ko Hezkuntza Fakultatean, Belfasten. Han espezialitate elebiduna irakasten du, gaelikoa eta ingelesa, eta aholkulari gisa ari da lanean gaelikoa eskoletan zabaltzeko mugimenduan, beraiek "Irish-medium education" deitzen dutena.

HUHEZIn dagoen bitartean, Eibhlin Mhic Aoidh andereak hitzaldiak emango dizkie Irakasle Ikasketetako ikasleei eta Ikus-entzunezko komunikaziorikoei, bilerak egingo ditu fakultateko zenbait talderekin eta hainbat eskola bisitatuko ditu Eskoriatzan.

Argazkian, Ane Urizar, Eibhlin Mhic Aoidh eta Begoña Pedrosa.

